

# Nortzu ziren neandertalak? Gure arbasoak ziren?



**Erantzuna:**

## **Maria Fernanda Sánchez Goñi**

Bordeleko Unibertsitateko Irakaslea

Kaixo. Ba al dakizue nor ziren gure arbaso neandertalak? Bada, Europan duela 400.000 urte baino gehiago azaldu zen giza espezie bat, duela 37.000 urte inguru desagertu zena. Fisikoki, oso mozkoteak ziren gure aldean, garezur luzexka zuten,

ia ez zuten kokotsik, eta oso betzulo nabarmenak zituzten.

Eta ba al dakizue non bizi izan ziren? Zer eskualdetan bizi izan ziren? Bada, Iberiar penintsularen hegoaldean; alegia, hemendik oso gertu. Zergatik desagertu ziren, baina? Homo sapiensa Afrikatik lur berrien bila atera zenean desagertu ziren: neandertalekin topo egin zuen, eta bi espezieak baliabide berak lortzeko lehiatu ziren, landare berak biltzeko eta animalia berak ehizatzen. Homo sapiensak irabazi zuen, gure espezieak, baina, aldi berean, neandertalekin nahastu zen, haiekin hibridatu zen, eta seme-alabak izan zituzten. Horrexegatik, neandertalak ez dira desagertu guztiz: gure zeluletako geneen % 2 inguru neandertalak dira.